



Duela urte bete, bosgarren JAZPANA! amaitu zenean ziklo baten amaiera bizitzen ari ginenaren sentsazioa izan genuen. Azkar esaten da bost urte eta azkar pasa dira. Hala ere, abiada hartuak ginen eta konturatzerako, JAZPANA! berri bat aurkezten hasiak gara.

Ez dakigu ziklo berri bat irekitzen den edo guztiak berdin jarraitzen duen baina sentsazioa dugu jaialdiak egonkortuz jarraitzen duela edizioz edizio eta horrek ematen duen konfiantza eta gogoarekin antolatu dugu seigarren JAZPANA! hau.

Urtero, jaialdira ekintza berriak gehitzen goaz eta aurtengoan oso pozik gaude Jazpanart! ekimenak hiru urte beteko dituelako. Rural Postmodern lelo horren barrenak azaleratzeko asmoz sortu genuen orain hiru urte eta gaur egun, bizi propioa duela esan genezake. Igartza Monumentu Multzoan ospatuko da aurtengoan ere eta azken bi urteetakoak bezain arrakastatsua izatea espero dugu. Beste ekintza batzuen artean, kartel tailerra, Jazpanazoka edo DAC taldearen kontzertu bat gozatu ahalko dira, azken hau, hasiera ematearen egunean, Urriaren 18an.

Horretaz gain, eta betiko moduan, dagoeneko klasiko diren Argazki Rallya, 3x3 Saskibaloia Txapelketa zein Skate Lehiaketaz gozatu ahal izango dugu ohiko eremu eta orduetan baina garrantzitsuena, eta jendea urriko azken asteburuan Beasain aldera ekarriko duena, musika da.

Gustura gaude kartelarekin eta talde gazte zein klasikoen artean oreka eder bat bilatu dugulakoan gaude. Betiko moduan, ostiralean lau kontzertu eta DJ batez gozatzeko aukera izango duzue Bernedoeneako karpa erraldoian eta larunbatean, 8 talde eta DJ batez. Eta guztia nola ez, DEBALDE. Bestela, ez litzateke JAZPANA! izango.

Hauek dituzue JAZPANA! Fest 2014an Beasainen izango ditugun taldeak:

Urriak 24 (Ostirala)

LADISLAO

Gure gaztarora begiratzen dugunean bi musika sorkuntza gunen nagusi gogoratzen ditugu Goierri. Nola ez, gure Seattle propio zein txikiak Ormaiztegi eta Lazkao genituen. Ladislao, bigarren mugimendu honetan izan zuen bere jatorria. Kideak Captain Nemo, Brigada Criminal, Fist Fucking, Los Rockinson, Eskoriatza edota Señor No Taldeetan aritu dira eta Ladislao hau dugu beraien azken kumea. Punk Rocka jorratzen dute hardcore ikutuekin eta Bonberenea estudioetan grabatu dute debut lana Karlos Osinagaren gidaritzapean. Kantu azkarak, zuzenak eta ziur, inor geldirik utziko ez dutenak.

NUEVA VULCANO

Nork ez du gogoratzen bigarren JAZPANAn bartzelonarrek eskaini zuten kontzertu ikaragarria? Gure talde kuttunen artean genituen eta sinetsi ezin bagenuen ere, gurean izan genituen "Los peces de colores" lana aurkezten. Ondo zaindu genituen eta gustura itzuli ziren etxera. Aurten, "Todo por el bien comun" EPa aurkezten, berriz ere Goierri izango ditugu eta talde honek lan



luze eta lan luze artean EPekin gozatzen duena kontuan izanda, ez dugu zalantzarik jazpanazaleak ere zirrara ahaztezin batekin utziko dituztela berriz ere. Kantu indartsuak izpiritu lasai batekin, hitz eder zein pertsonalak eta melodia indartsuak. Zer gehiago nahi duzue?

FUMUT

Fumut taldea Lazkaon sortu zen 2010 inguruan. Lazkaotar zein Ordiziarrez osatua dago eta nahiz eta hasiera batean bertsioak egiten zituzten, 2013an kantu propioekin eskenatokira jauzi egitea erabaki zuten. Kantu hauek gure belaunaldia erabat markatu zuen leku eta unera eramango gaituzte eta kontzertua entzuten hasi bezain pronto, Palmeko desertuan ikusiko dugu gure burua Eustoner rockaz gozatzen. On egin!

THE LOOKERS

Duela 3 urtetik Ziburuko hirukote gazte zein lotsagabe honek bere Garaje Rock urduriz busti ditu Bidasoako bi ertzak. Beraien kantuen eraginkortasunak, indarrak eta benetakotasunak belaunaldi arteko zalego fidel bat egonkortzea eskaini die Mikel, Nicolas eta Charlieri. Flaming Groovies edo Ty Segallen taldearen miresle hauen sona egunero doa handitzen Euskal Herrian eta beste batzuen artean Mikal Cronin, The Chrome Cranks, Eddie And The Hot Rods, Redd Kross, The Fleshtones, The Richmond Sluts, Kid Congo Powers edo The Bellraysrekin jotzen izan dira. Hemendik gutxira, talde gazteek aipatuko dituzte beraiek kontzerturen batean kointziditu ostean. Ez galdu aukera zuzenean ikusteko.

OLARIUS & BROTHERS DJ'S

Musika gaixotasun moduan ulertu badaiteke, bi hauen artean patologia ezberdinak biltzen dituzte. Ion eta Egoitz edo Egoitz eta Ion Beasaingo gaztetxean hasi ziren beraien rock sesio zitalak eskaintzen baina bataioaren eguna, bigarren Jazpanan iritsi zitzairen. Horrezkero, Euskal Herrian zehar ibili dira beraien sesio amaiezin zein dibertigarriak eskaintzek. Olarius & Brothersen sesio batean edozer gauza entzun daiteke, eta edozer gauza pasa daiteke. Horregatik gustatzen zaizkigu hainbeste eta horregatik gonbidatu ditugu berriz ere Jazpanara.

Urriak 25 (Larunbata)

CAPSULA

Zer esan Capsularen inguruan... Lehen JAZPANAn izan genituen eta herria goitik behera astindu zuten. Gu ere sentsazio berberarekin geratu ginen eta seigarren edizio honetan berriz ere beraien zuzeneko ikaragarriaz gozatu ahal izango dugu. Beraien azken lana "Solar Secrets" izan da eta hemen izan genituen azken alditik gora egin du nabarmen hirukote argentinar bilbotarrak. Estatu Batuetan harrera ederra izan dute beraien azken lanek eta makina bat bira burutu dituzte bertan. Capsulak Rock'N Rolla egiten du bai baina hirukote hau hori baino askoz gehiago da. Capsula, Rock'N Rolla da.



LASERS

Poparen magiak, unibertso elektrikoak eta literaturak batak besteari traba egiteari uzten diotenean musikak gidaritza hartzen du bestela kaos madarikatua besterik izango ez litzatekeen horretan. Oraingo honetan, Lasers hirukote bartzelonarra izango da balentria honen ardura izango duena. Erraietatik ateratzen den elektronika zintzoa, sample eta soinu zikliko nekaezinak bihotz bati bizitza ematen dion odolaren bulkada jarioaren moduan. “Lasers” EParekin hasi zuten ibilbidea eta “Juno” LParekin jarraitu dute bidea Marco Morgioneren gidaritzapean (Delorean eta El Guinchoren teknikaria). Datozen hilabeteetan mundu osoaren ahotan izango den taldea dugu Lasers eta horren aurretik JAZPANAn beraien zuzenekoaz gozatzeko aukera izango dugu.

NIKKIN

Musika estilo batean finkatzea zaila den bakarlaria da Nikkin. Izen honen atzean Igor Alustiza multi-instrumentista beasaindarra topatzen dugu eta bere musika influentzia ugari batzen dituen proiektu batean aurkezten da. Pasa den urtean Murgil tabernan izan zen JAZPANA Herrian ekimenaren barnean Jon Eskisabelekin batera Fixed Tonight proiektuarekin. Atzera begiratz gero, Spuriu, The Gu edo Zero taldeetan ibili izan da Igor. Oraingoan, bakarlari moduan datorkigu eta bere abestien zuzenekoaz gozatu ahal izango dugu JAZPANako eskenatoki handian. Bertan, ordenagailuaren grabatu eta loop bidez antolatzen dituen pistak eskainiko dizkigu pixkanaka, eta puzzlea osatzen doan heinean abestiek indarra hartzen duten bitartean.

BUFFALO

Azken urteetan beti izan dugu talde instrumental bat gutxienez JAZPANAn eta aurtengoan ere horrela izango da nola ez. Oraingoan Buffalo zarauztarrak izango dira ardura honen jabe eta jakin badakigu ez dutela kalerik egingo. David, Ander eta Joanesek osatzen dute 2008an sortu zuten talde hau. Horrezkero, makina bat kontzertu eskaini dituzte Euskal Herria zehar eta baita bertatik kanpo ere. Beste batzuen artean, pasa den urteko Kutxa Kulturean izan genituen eta aho zapore ederra utzi zieten gerturatu zien guztiei. Zuei ere gauza berbera gertatuko zaizue ziur beraien kontzertura gerturatzen bazarete.

IT'S NOT NOT

Zenbat gustatzen zaizkigun talde mitikoen itzulerak! Oraingo honetan, Bartzelonako superbanda alternatibo aktiboenetako bat izango dugu Jazpanan. Post-Punk talde hau Dies Irae, Tokyo Sex Destruction, Veracruz edo Standstill bezalako taldeetako kideek osatzen dute eta itzulera honetarako, The Unfinished Sympathy taldeko Eric Fuentes batu zaie. Talde standby egoeran utzi zutenean hiru LP zituzten bizkarrean BCore disketxean eta gaur egun, material berria prestatzen ari dira. Talde hau osatzen dutenak oso musikari onak dira eta hori ziur, Bernedoeneako eskenatokian argi eta garbi geratuko da. Kalerik egin ezin daitekeen horietako kontzertu bat.



CRAZY YOUNG

Crazy Young Ordizia eta Ataun artean sortutako taldea da. Bateria, bi gitarra eta baxu kantari batek osatzen dute. Ibilbide luzeko musikariak ditugu guztiak eta beraien bizitzan zehar hainbat estilo zein influentzi bildu dituzte. Azkenaldian, banda handien tributuek eskaintzen aritu dira eta azkena, Neil Young handiari eskainitako izan da. Eraitza ederra izan zen eta proiektua denboran luzatzea erabaki zuten. Hori dela eta, Jazpanan izango ditugu Rock & Roll, Folk eta Countryaren zaleak asebate uzten.

ZA!

Za! bi pertsonak osatzen duten ozeanoz bestaldeko zein primitiboki futurista den orkestra bat dugu. Beraiek, Spazzfrica Ehd eta Papa duPau ditugu. 2011an mundua alderantziz jarri zuten beraien "Megaflow" lan gogoratuarekin eta 2013an, ez zen gutxiagorako izan "Wanananai" LParekin lortu zutena. Azken lan honekin mundu osoan zehar ibili dira kontzertuak eskaintzen eta hortxe topatu dezakegu talde honen indargune nagusia (Rockdeluxe aldizkariak 2013 zuzeneko hoberenaren saria eskaini zien). Bikote honen grina nagusia imajinatzeko ia ezinezkoak diren nahasketak gauzatzea da. Hots, jazz afrokubatarra postrockarekin, dancehall jamaikarra grungearekin, rave festa bateko elektronika noise industrialarekin edo Baliko doinuak Black Sabbathekin. Bai, tipo hauen irudimena ozeanoz bestalde baino, planeta honetatik haratago dago.

BEACH BEACH

Chorus gitarra distiratsuek, baxu saturatuek, fuzz ikutuek eta tempo altuek osatzen dute atsedetik gabeko erritmo dardaratsuez beteriko lan hau. "The Sea" 80. hamarkadako jangle zein power pop doinuetara jauzi bat da. Sarah Records edo Flying Nun etxeetako taldeak gogoratzen ditu eta 90. hamarkadako lehen indieak zein soft rock klasikoek ere badute bere eragina. Disko honek oso garbi ez dugun etorkizun ilun eta samingarriaren inguruan hitz egiten du, galdutako aukerez, traizioaz, koldarrez betetako mundu batean heldua egiteaz. Beach Beachen azken lan hau irailean kaleratu zuten baina horren aurretik, Primavera Sound edo Britainia Handian buruturiko bira batean aurkeztu dute. Hurrengo zita, Jazpanan izango dugu.

DJ COCO

Bartzelonako eszena indiea ulertzeko, DJ COCO, entzun beharreko DJa da. 15 urte daramatza bere hiriko zein Europako kabinetatik igarotzen eta beste batzuen artean, Berlin, Paris, Estocolmo, Londres edo Moskun izan da mota guztietako jendea dantzant jartzen (uda honetan adibidez, Helsinkin izan FLOW Fest edo Los Angelesen FYF jaialdi handietan musika jartzen). Azpimarratu behar da Nitsa Club-aren dj residentea dela eta hainbat alditan Primavera Sound jaialdia ixten duela bere sesio mitikoekin. Cocoren sesioak dantzagarriak direla esan dugu eta horrela da; electro, rock, sitie, disco, indie edo mashupak entzule zein jaialdiaren arabera baina beti, bere marka utziz. Badakigu zein ordutan amaituko duen Jazpanan baina ez dugu uste bere sesioaren ondoren inork etxera joateko gogorik izango duenik. Benetan, ez galdu saio hau



bestela, noiz edo noiz, damutu egingo baitzara. Estatu mailako DJrik garrantzitsuenetako bat izango dugu gure herrian bertan (Pasa den urtean, hoberenaren saria jaso du Rockdeluxe aldizkarian).

...

Horretaz gain, pasa den urtean estreinatu genuen “JAZPANA! Herrian” ekimena errepikatuko dugu eta larunbat arratsaldean herriko bi tabernetan ere kontzertuak izango dira. Aurtengo jaialdiak tabernatan edukiko ditugun taldeak izango dira:

SIETE C

Siete C taldea 2011n jaio zen “Familia” lana argitaratu zutenean. Hala ere, ez zen egun batetik bestera jaio. Taldekideek 10 urte zeramatzaten lagunak izaten eta horixe adierazi nahi izan zuten diskoari jarritako izenburuarekin. Urte dezente beste talde batzuetan ibili ostean, Siete Cko taldekideak berriz bildu eta garai hartan jotzeko gogo gehien sortzen zizkieten kantuak sortzen hasi ziren. Proiektu berri honekin mundu akustikora jauzi egin zuten baina betiko indar, hunkiberatasun eta apaltasunarekin, intentzioz beteriko melodia eta hitzekin. Oraingo honetan Koiote tabernan edukiko ditugu formatu txikiko kontzertu batean.

DISCO ESTUPENDO

Bi musikari gipuzkoar hauek behin baina gehiagotan elkartu dira bidean beraien musika ibilbide luzean zehar. Oraingo honetan ordea, berezia da. Disco Estupendo proiektua martxan jartzeko izan da eta azken aldiz batera aritu zirenetik 10 urte igaro dira. Samplerrak, sintetizadore, efektuak, loopak eta gitarrak bikote honen musika unibertsoa aske uzteko. Eta behin hasita, ez dago atzera bueltarik. Iluntze tabernan egongo da aukera proposamen fin honekin gozatzeko.

...

Hementxe duzue ba Jazpana Fest jaialdiaren programa bere seigarren edizioa ospatzeko. Espero dugu guri bezain hainbeste gustatzea eta JAZPANA! FEST 2014 hau zuen hedabideetan edo ingurunean zabaltzea. Mila esker eta JAZPANA!n ikusten gara! Zatoz **Ruralismo Postmodernora!**